

ZUMAIAKO UDALA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

2005EKO UZTAILAREN HOGEITA BATEAN UDAL PLENOAK EGINDAKO EZOHICO BATZARRALDIKO AKTA.-

Zumaiako hirian, bi mila eta bosgarren urteko uztailaren hogeita batean, arratsaldeko zortzietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan (Foronda Kultur Etxean), Udal Plenoa eratu da ezohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz. Eta garaiz eta behar bezala deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren korporazio kideak etorri ziren:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.
Andoni ETXANIZ OSA jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- KONTU OROKORRA ONARTU ETA AURREKONTUKO LIKIDAZIOEN KONTU EMAN.

Asier Esnal Albizu Hazienda Batzordeko Lehendakariak 2004ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorrari buruzko azalpenak ematen ditu

transparentziaz lagundurik. Akta honi eransten zaizkio. Laburbildurik ondorengo koadroetan jasotzen diren zenbakiak aurkezten ditu.

BALANCE DE SITUACIÓN a 31-12-2004

(euros)	UDALA	SAN JUAN	MUSIKA PATR.	ZUMAIA LANTZ.
ACTIVO	23.105.629	1.289.207	545.306	3.295.664
Inmovil.material, inmat.y entregado al uso general	17.689.922	1.515.543	667.921	9.457
- Amortizaciones	-2.886.028	-437.420	-243.867	0
Participaciones en el sector público	2.102.929	0	0	0
Inversiones financieras	1.352	0	0	1.001.366
Fianzas depositadas a largo	663	0	0	0
Deudores	3.304.836	86.922	97.825	698.658
Entidades públicas deudoras	30.037	0	0	55.031
- Provisiones	-196.945	0	0	0
Existencias	0	0	0	1.376.206
Tesorería	3.058.863	124.162	23.427	154.946
PASIVO	23.105.629	1.289.207	545.306	3.295.664
Patrimonio / Capital	7.458.514	32.518		2.267.892
Patrimonio adscrito / en adscripción	-1.800.855	1.207.258	593.597	0
Patrimonio entregado al uso general	-11.568.264	0	0	0
Resultados de ejercicios cerrados	19.979.007	-55.430	-74.566	17.754
Pérdidas y Ganancias	6.319.331	-59.575	8.098	8.738
Subvenciones de capital	0	0	0	0
Deudas a Largo Plazo	593.497	0	0	0
Acreedores	1.720.931	94.213	18.177	946.824
Entidades públicas acreedoras	100.184	10.498	0	3.692
Otras deudas	255.000	0	0	0
Fianzas y depósitos recibidos	48.285	59.725	0	50.764
Valores en depósito	2.980.641	12.390	0	0

Gai honi buruz herrian zuzena ez den informazioa zabaldu dela aipatzen du. Azkenik azpimarratzen du kontu orokorrean barneratzen dela kontabilitate patrimoniala.

Alderdiei luzaturiko hitz txandan IZUSTARRI Taldeko bozemaileak korporazioko alderdi bati egin zaizkion zuzeneko alusioak ez dituela egokitzat jotzen dio.

Kontu orokorrari buruzko azalpenak egitean gaizki ulerturik egon ez dadin aurrerapenez bidezko diren argibideak eman behar direla gaineratzen du.

Bestalde inbertsioen atalean exekuzioa % 67 izan da eta ez dago zertan beste inguruabar batzuk eman balira eta izan balitz eta ez balitz aritzea, datu objektiboa hori da. Soberan daude eskatzen ez diren esplikazioak ematea. Hori bere hutsean adierazgarria ere badela dio.

EAJ-ak zera erantzuten du kontu orokorraren azalpenak ematen beste alderdiei alusioak eginaz hastea ez dakiela bere horretan elegantea den ala ez, baina aldi berean herrian zabaldu den informazio bitxiari aipamena egitea ere ezin dela ekidin.

Aurrekontuak gastuaren aurreikuspenak dira besterik gabe eta aurreikuspen hauetan erdi erdian ematea eskatzen zaigu; hala ere aldea gertatzen denean nahiago positiboa izan dadin gure kasuan bezala.

PSOE alderdiaren esanetan, superabitak berez ez daukate zertan txarrak izanik, baina bai, superabit horren iturria inbertsioak gaizki kudeatzeagatik bada, hots ez delako aurreikusirikoa gastatu.

EAJk zera erantzuten du, gastu arruntaren aurreikuspenarekin bete betean asmatu dela, baina ez inbertsioarenarekin. Alde hau justifikatzen duen arrazoi nagusia Altuna y Uriaren %10eko zesioaren ordainketa izan da, baita ere Udaletxeko lanen inbertsioa eta FOFIN-aren igoera.

EAKo ordezkariak gai hau Hazienda Batzordean eztabaidatu dela dio.

EAJkoek Hirigintza Batzordean ere azalpenak eman direla adierazten dute.

Gaia eztabaidatu ondoren bozketa egiten da.

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 8 (5 E.A.J, 1 IZUSTARRI, 1 E.A, 1 PSOE)

Aldeko botuak: 7 (5 EAJ, 1 EA eta 1 PSOE).

Aurkako botuak: 1 IZUSTARRI.

ERABAKI DA:

2.005eko Kontu Orokorra onartzea, Udaletxeko Kontuaz, San Juan Egoitzakoaz, Musika Patronatukoaz eta Zumaia Lantzen Elkarte

Anonimokoaz osatzen dena, jendaurreko agerraldi epea iraganik eta inolako oharpenik aurkeztu ez delarik.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakari andreak bilera amaitutzat ematen du, gaueko bederatziak direnean, eta nik Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAK O.E

IDAZKARIAK